

2007KO AZAROAREN 14KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko azaroaren hamalauan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi eta Xabier Arrasate Aierbe.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren esaten du eguneko gai zerrendatik kanpo eta presakazko izaeraz Euskadi Enparantzako 5.zertifikazioa, likidazioa, gaia sartzea proposatzen dela. Denak ontzat ematen dute proposamena.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2007ko urriaren 10ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2007ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 9 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUEHUN ETA LAUROGEITA HAMAR MILA BERREHUN ETA HOGIETA HEMEZORTZI EURO ETA ZORTZI ZENTIMO (370.238,08,-)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 133 zbk.dun esped.: zerbitzua gehitzea, astean 5 egun eta egunean ordu terditik, astean 5 egun eta egunean 2 ordura. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %8a da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 847 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairua ordaintzeko 203,70 € ematea, azarotik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %97a da.

- 615 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuak ordaintzeko hilean 92,5 €ko dirulaguntza ematea urritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.

IV.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kirol astea.-

Lazkaoko Udalak, urriaren 23tik 28ra bitartean, Kirol Astea antolatu zuen, eta beste ekintza batzuren artean Errealaren enrtenamendu saioa izan zen Arizti Haundi kirol gunean, ondoren errealeko jokalariei bazkaria eskeini zitzaielarik. Lazkao Kirol Elkartek hartu zuen bere gain ekintza honen antolaketa.

Honen bidez, Tokiko Gobernu Batzarrera, Lazkao Kirol Elkarteari, ekintza honek suposatutako gastuak Lazkao Kirol Elkartera dirulaguntza moduan emateko proposamena luzatzen da honek onartu eta erabakia hartu dezan.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, guztien adostasunarekin, mila ehun eta zazpi euro eta berrogeita hamabost zentimotako (1.107,55 €) dirulaguntza ematea onartzen du.

Herriko kirol taldeei dirulaguntzak.-

2007ko ekitaldian udalerriko kirol taldeei ematekoak diren dirulaguntzen inguruan udalaren kirol batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako dirulaguntza hauek ematea onartzen du:

<u>KIROL TALDEA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Futbol taldea	6.845,00 €
Pelota taldea	1.953,00 €
Igeriketa taldea	728,00 €
Areto futbol gizonezkoena	1.100,00 €
Atletismo taldea	1.044,00 €
Mendi taldea	1.016,00 €
Txirrindulari elkarte	470,00 €
GUZTIRA	13.156,00 €

Eskola kirola.-

2006-2007 ikasturtean zehar eskola kiroleko egiturak sendotu eta programa aurrera eramateko Lazkaoko Udalak eta San Benito Ikastolak 2006-2007 ikasturterako 9.622 eurotako diru laguntza aurrikusi zuten.

Ikasturtea amaitu eta dagokion txostenak aurkeztu ondoren Foru Aldunditik jaso beharreko diru laguntza jaso izanik Tokiko Gobernu Batzarrera San Benito Ikastolari 9.622 eurotako diru laguntza emateko proposamena egiten da eskola kirolaren laguntza kontzeptuan.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, guztien adostasunarekin, bederatzi mila seiehun eta hogeita bi eurotako (9.622,00 €) dirulaguntza ematea onartzen du.

V.- EUSKADI ENPARANTZAKO URBANIZAZIO LANEN 5. ZERTIFIKAZIOA, LIKIDAZIOA.-

Euskadi Enparantzako urbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman Iñigo Guibert de Encio Arkitektoak lanen 5. zertifikazioa, likidazioa, luzatu du. Zertifikazio honen zenbatekoa LAUROGEITA HAMAIKA MILA EHUN ETA HOGEITA BOST EURO eta LAUROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (91.125,89 €)takoa da. Lan hauek burutzen ari dena Construcciones ERGA, S.L. da.

Udal teknikariak zertifikazio honi bere oniritzia eman dio.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, Euskadi Enparantzako urbanizazio lanen 5. zertifikazioa, likidazioa onartzea erabakitzen du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.